

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Biriatu



Aurkibidea

Udalerria: Biriatu

Sarrera



Biriatu Lapurdiko udalerria da, Hendaiaiko kantonamenduan kokatua dagoena. 1603. urtean herri egin zen, Urruñatik bereizi ondoan. Bidasoa ibaiak Lapurdi, Gipuzkoa, eta Nafarroaren arteko muga marrazten du Biriatun. Bertako euskalkian nahasketa nabaritzen da. Kontrabando handia izan da bertan XX. mendean zehar, eta Bigarren Mundu Gerran errefuxiatu askorentzat pasabidea. Xoldokogaina da bertako mendi nagusia, eta oihan zabala ere dago Biriatun.

- **Biztanleak:** 1.114
- **Euskaldunak:** %8,55

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **5**
- Pasarteak: **18**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **18**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Pierre Apendiztegi (1930)



Errekaldia baserriko nagusia. Bere bizia Bidasoa ibaiari lotua da. Aita bertan ito zitzaion txiki-txikia zenean. Baina Bigarren Mundu Gerran eta kontrabandarako ederki babestu du ibaiak. Elkarriketa garaian ere, baserriko frutu eta barazkiak Bidasoako gorabeheren arabera dituen. A-63 / A-8 autopista eraikitzearen aurka izan zen garaian, eta gaur oso ezkor agertzen da AHT proiektuarekin.

Joaquin Arizaga (1929-2013)



Hendaian sortua, Biriatur bizi izan zen. Gerra Zibileko errefuxiatuak zituen gurasoak, gipuzkoarrak biak. Baina Joaquin emazte bariatuar batek hazi zuen. Aitaren historia gerora jakin zuen: Francoren aurka borrokatu ondoan, Bordelera, Frantziara, errefuxiatu zen. Hor, erresistentzian sartu, eta alemanen aurkako erasoetan parte hartu zuen. Baina norbaitek salatu, eta preso eraman zuten, eta han hil zen. Ama, berriz, Donostian egon zen denbora guzian. Bigarren Mundu Gerrako oroitzapen propioak ere bazituen Joaquinek, baita kontrabandokoak ere. Pilotazalea zen.

Pierre Gaztelumendi (1928-2019)



Zurgintzan aritu izan zen lanean gehienik. Gaueko lanean anitz aritu zen, bariatuar gehienak bezala; xardina eta atun latak pasatzen zituen batez ere, beste hainbat gauzen artetik. Mendian atxilotu, eta Donostian egon zen preso zortzi egunez. Bertsoak idazteko denbora izan zuen. Bigarren Mundu Gerran, gaitzeko abentura gertatu zitzaion, aleman soldadu baten armarekin. Florentino Goikoetxeaz ere aritu zen elkarrizketan, hau gerra denboran jendea pasatzen aritzen baitzen, Urruñatik Oiartzunera, Bariatutik pasatuz. Aita Lezokoa zuela nabari du hizkeran.

BTU-005 Hizlari ezezaguna

Biriatur jaio eta bertan bizi izan da beti. Txofer lanean ibilia da kamioiarekin. Etxean beti euskaraz hitz egiten zutela dio.

Janbattitt Lekuona (1933-2012)



Agerreko Bordan sortua, bertan eraman zuen bizia, laborantzian. Ardiekin eta baratzearekin biziarazi zuen etxalde txikia. Bide txarrak izanez, Bidasoa baliatu zuen, auzoek bezala, egurra garraiatzeko, jada desagertu diren bi barku klaserekin. Herriko Etxeko kontseiluan ere urte asko pasa zituen. Mixel Lekuona erretorea, bere anaia, ezaguna izan zen Iparraldean, batez ere bertso eta euskararen munduan. Bigarren Mundu Gerrako oroitzapen latza zuen Janbattittek, nahiz eta garai hartan gaztea izan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Euskara batuaren garrantzia eta beharra

- **Hizlaria(k):** Arizaga, Joaquin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** BTU-003/022
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:57:56. **Bukatu:** 01:00:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Errazkin, Aitor
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Biriatun ikasi izan du euskaraz, eta Hegoaldeko kutsua du, bere familiaren jatorria han baitu. Euskara ikastolan ikasi behar dela uste du, euskaldun guztiok elkarren artean ulertzeko behar baitugu euskara batua.

Transkripzioa

- Zure eskuararen entzuten ari niz, oren bat huntan eta arrunt nahasia duzu /nahasia'uzu/. Gipuzkoako eskuaratik baduzu /ba'uzu/, eta hemengo formak'e baliatzen dituzu /baliatzein'tuzu/.
- Bai, gu hemen ikasi dugu, euskuara...
- Zuk hemen, hemen, ikasi, ikasia duzu / ikasia'uzu /,hemen, Biriatur, eskuara?
- Bai, itxian, ta nola hango zien, nola zien eendu nintzenak, beharbada haiekin batian hango hitz batzuk'e bai. Biño konprenitzen duzu / konprenitzeuzu/ gue eskuara?
- Bai, ba-bai! Xarmanki!
- Ah, bon...
- Bistan da, ikastolakin, difeente... beharba. Nik uste normal da ikastolan eskuara jartzia, orain, [ni berzela zein da?] Bestela, Bilbaora joaten baze ez duzu /eztuzu/ deus konpreituko, nik behinpin ez dut /eztut/ asko ingo, ta zuk ezta, ta Xuberora joaten banaiz'e ez!
- Zailak dira, bai Bilbokoa ta bai Xuberokoa.
- Jo... "Ü" ta eztaki ze, ta...
- Ba'uzu, hola, eskuara edo eskualkia bat baino pollitagoa, zure irudiko?
- Ez... Nik beti idealizatu dutena da, eskuara behar dela eskolan ikasi.
- Eskolan...
- Ni ikastolan alde naiz. Denak elkar konprenitu dezagun! Guk xuberotarrakin ez dugu deus itekoik! Ez dugu konpreituko erdiya! Ta faten baga'e Bizkaira, Bilbaorat edo haratxio, makina bat gauz ez dugu konpreituko, e!
- Ez... Hala're, ez zaizu /etzaizu/ iruditzen hori're, nunbait xarma dela, eskuararen xarma, eskualde hortan hola mintzo da ta... Bertzian, bon, gisa hartara...
- Bai... Nahi badugu eskuara bat izan, behar dugu denak igual ikasi! Ez?
- Bai, bai, bai, zure ikusmoldea baldin bada...
- Frantsesa bat da, ta española're bat da, ta eskuarak deretxu hori, neetzat behar du izan. Ni behinpehin eskolan aldekua naiz. Ongi da hori itia.
- Untsa. Eta hemen, hemengoak ttipitan-ta konpeintzen zenituen errexxi, hemengo haurrak, jendeak...
- Ah, bai... Uain, eskuara gutti iten da, bai, beharba, lehen baiño. Lehen ez zen /etzen/ familik eskuara iten ez zutenik /etzutenik/.
- Ez, e?
- Gutxi! Guarda batzuek edo, beharba... Baiño uain kanpoko jende franko etortzen da bizitzera ta hoiek, batzuek ez dakite /eztakite/ sobera, ez.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aita terrorista kriminal izatetik heroi izatera (BTU-003/002)

Hendaian sortu zen: aita donostiarra zuen eta ama Getariakoa (Gipuzkoa). Hendaiaiko familia batean hazi zen, gurasoak Hegoaldean zeuden bitartean. Espainiako gerra zibila iritsi zenean, muga itxi zuten, eta ordutik ezin izan zituen gurasoak ikusi. 1939an aita ihesi etorri zen Bordelera eta han egon zen arreba baten etxean 1942 arte; han zegoela, erresistentzian sartu zen, baina

harrapatu egin zuten salatu egin baitzuten; presondegira eraman zuten eta han jasotako torturengatik hil egin zen. Gerora jakin izan du Joakinek aita non dagoen lurperatuta eta zer gertatu zitzaion: terrorista eta kriminala izatetik, heroi izatera pasa zen.

2. Masakrearen seme-alabak (BTU-003/003)

"Droit de reparation". Masakrearen seme-alabak izateagatik kalte-ordainak eman dizkiete gaur egun. Aitaren heriotzari buruz galdetzen hasi zenean, batetik bestera joan behar izan zuen.

3. Gurasoengandik bereizita umetatik (BTU-003/004)

Aitaz oroitzapen gutxi ditu: izan ere, 7 urte zituenerako muga itxi zuten eta ezin izan zuten gehiago elkar ikusi. Ama beti Donostian bizi izan zen; ezin zuen, ordea, asko hitz egin Francoren aldekoek informazio gehiegi izango zutelakoan. 1947an muga ireki zenean, berriro ikusi zuen ama. Denborarekin, bere jatorriaz gehiago jakin nahi izan zuen Joakinek eta guztia ulertu zuen orduan.

4. Aitak ezkutuan ibili behar (BTU-003/005)

Aita Bordelen erresistentzian zen bitartean, Joakinek ez zuen haren berririk izan; izan ere, ezkutuan egin behar zuen dena aitak. Aita batzuentzat terrorista besteentzat heroi izan zen.

5. Alemani aurre egiteko adorea (BTU-003/006)

Gerra garaian Biriatuan bizi zen, Hegoaldeko emakume baten etxean. Ordurako ez zituen maite alemanak, eta gerora jakin zuen aitari gertatutako guztia. Salamancatik ekarri zioten aitari buruzko dosierra, hark zer bizi izan zuen eta zergatik kondenatu zuten jakin nahi baitzuen Joakinek. 1942an alemanei aurre egin zietenek meritu handia izan zuten, orduan alemanak indartsu baitzebiltzan.

6. Espainiako gerratik Frantziako armadara (BTU-003/007)

Espainiako gerratik etorri eta erresistentzian sartu ziren gizonetako batzuk Frantziako armadan sartu ziren. Gernika komandoari eta Ordoki komandanteari buruz hitz egiten du: Frantziak eman zien hitza ez zuen bete. Euskaldunen batailoiak erabili zuen ikurrina Gernikara eraman zuten gerora.

7. Florentino Goikoetxeari bizia salbatu ziotenekoa (BTU-003/009)

Florentino Goikoetxeari buruz hitz egiten du. Aleman batek egin zion tiro Goikoetxeari, eta gerora ospitalean salbatu egin zuten ingelesek.

8. Hegoaldetik Bordelera jendea pasatzen laguntzen zutenak (BTU-003/010)

Donostiako mutil batek Hegoaldetik Bordelera pasatzen zituen "gordeak". Gerora, alemanak zakurrak erabiltzen hasi ziren, haiek usaimenari esker jendea harrapatzen baitzuten gauez. Zakurrei aurka egiteko, Amerikako produktu bat erabiltzen zuten; izan ere, produktu horri esker, zakurrek alde egiten zuten. Mutil hura hil egin zuten 1944an soldadu espainolek.

9. Bidasoa zeharkatzeko zailtasunak eta arriskuak (BTU-003/011)

Bidasoa zeharkatzea biziki zaila zen: alde batean alemanak zeuden eta bestean guardia zibilak. Badira muga pasatzean hil izan direnak; gerora haien gorpuak bilatu nahi izan dituzte haien senitartekoek.

10. Alemanen kolaboratzaileak erresistentziaren alde (BTU-003/012)

Gerrako erresistentzian mutil gazteak ere aritu ziren. Gerra nork irabaziko zuen jakindakoan, jende ugari irabazleen alde egotera pasa zen. Alemanen kolaboratzaileei buruz hitz egiten du. Hendaiaetik jende ugari eraman zuten kontzentrazio-esparruetara, baita 14 urteko mutil bat ere. Hitz egiteko beldurra zegoen garai hartan.

11. Zibilen arteko gerra tristeak (BTU-003/013)

Espainiako gerra zibilean, lehengusuak lehengusuen aurka aritu ziren borrokan. Biriatur giro lasaiagoa zegoen Hendaian baino. Biriatur soldadu alemanekin zer-nolako harremana izan zuten azaltzen du. Gerra amaieran, handik eta hemendik jasotzen zuten herritarrek gerraren bilakaeraren berri.

12. Gerraren amaiera azkenean (BTU-003/014)

Gerra amaitutakoan, alemanak Biriaturtik joan ziren. Biriatur ez zen erresistentzia handirik egon. Alemanak joan zirela uste zuteneko anekdota kontatzen du. Joaquinen aitak ekintza asko egin zituen erresistentzian, eta azkenean harrapatu egin zuten. Alemanak bortitzak ziren.

13. Gerrari buruzko berriak noizean behin (BTU-003/015)

Gerra amaitzeaz zegoenean, berrien zantzuak bakarrik iristen zitzaizkien. Normandiako lehorreratzearen berri izan zuten.

14. Biriatur kontrabandoa beti (BTU-003/016)

Biriatur beti izan da kontrabandoa: kafea, txokolatea, txahalak... Beraiek ere aritu izan dira kontrabandoan ardoarekin, arroparekin...

15. Portugesak pasatzeko kontrabandoa (BTU-003/017)

Jende-kontrabandoa bazen lehen, portugesak asko pasatzen ziren. Kontrabando mota hori antolatuta zegoen, baina ez zuen ospe ona. Kontrabandotik ez dira aberastu izan. Muga guztietan egon izan da portugesen kontrabandoa.

16. Nazionalitate espainola ala frantsesa? (BTU-003/018)

Gaztetan baserrian ibili zen lanean; 19 urterekin soldadutzara joan zen. 18 urte eta 2 hilabete izan baino lehenago, bazuen aukera nazionalitate espainola eskatzeko, baina ez zion arretarik jarri horri.

17. Pilotarako zaletasuna beti (BTU-003/020)

Pilotarien artean desafioak egiten zituzten lehen. Trinketa eta ezker-pareta gustuko ditu, baina gehienbat eskupilota. Adin guztietako mutilak etortzen ziren pilotan jokatzera; neskak ez ziren aritzen, baina.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com